

**2013KO UZTAILAREN 4AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Uztaila.

URTEA: Bi mila eta hamahiru.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK:

- M^a Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Idoia Baztarrika Prieto
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M^a Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

1.- AURREKO AKTA. 2013ko maiatzaren 23ko aktaren onespena.

2013ko maiatzaren 23ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik ez dakit ondo jasota geratu den Igartzako kudeaketaz hitz egin genuenean egindako galderaren erantzuna. Nik galdetu nuen ea esleipendunari egindako aldaketen ondorioz, kontratua bertan behera utziko balu, zigorrei dagozkion isunak berak ordaindu behar dituen ala ez. Nik ulertu nuen beraren aurka ez zela inor joango eta aktan, aldiz jasotzen da ikusi egin beharko litzatekeela.”

Alkate jaunak (BILDU): “Nik uste dut ondo jasota dagoela. Agian nik esango nuen nire ustetan ezetz, baina hori aztertu egin beharko litzatekeela komentatu zen. “

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Posible da kontratu bideragarria ez izatea eta utzi beharra izatea, orduan isunak jarriko litzaioke. Hori posible da?”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Hori beste kontratu batzuekin gertatzen den bezala da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Legalki zer gertatzen den badakit, baina berarekin hitz egindakoa ez.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Berarekin ezer ez da hitz egin.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Garbi dago behintzat kontratua bertan behera uzten badu, ordaindu egin beharko duela.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Garbi dagoena da, hori ez dela berarekin hitz egin eta uzten badu kontratua analizatu egin beharko da eta horretarako daukagu idazkari eta abokatu bat eta berak esango du kasu horretan zer gertatuko den.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Garbi dago kontratua uzten bada, berak ordaindu egin beharko duela”.

Jarraian Idazkariari galdetu dio ea kontratuak hori esaten duen ala ez.

Idazkariak esan du galdera hori kontratuaren edukiari buruzkoa dela eta orain aurreko bilerako aktan jasotakoari buruz tratatzea dagokiola.

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): "Aktan ez da jasotzen ezta ere nik esan nuena, hau da, Dolarea eraikin publikoa dela, kudeatzaileak orain arte 265 egunetan kudeatu duela eta bisita-prezioen diru kopurua ere jasotzen zuela. Orain akta guztia aldatzen hasi behar al dugu?".

Idazkariak esan du akta ez zela grabatu eta zehatz-mehatz esandakoa ez dagoela jasota, baina orain dela momentua esateko aktan zer jaso nahi den.

Alkateak esan du, bere ustetan aktak jasotzen duena dela esandakoa.

Horren ondorioz, 2013ko maiatzaren 23ko akta onartu da.

2.- UDALAREN ALDE ONDASUNAK ESLEITZEA.

Alkatea jaunak (BILDU), Hazienda Batzordeko proposamenaren berri eman du:

"Gaia: premiamenduzko bidean enkantea hutsik geratu ondoren 8. Sektoreko lursailak Udalari esleitzea.

AURREKARIAK

I.- Dagokion premiamenduzko espedientea izapidetu ondoren, 2013-06-13an, CAPIRESGO PEDROLA, S.L.ren lursailak subastatu ziren eta egindako 1. eta 2. lizitazioan enkantea hutsik geratu zen.

II.- Dagokion premiamenduzko espedientea izapidetu ondoren, 2013-06-19an, AU 24 EDIFICIOS, S.L.ren lursaila subastatu zen eta egindako 1. eta 2. lizitazioan enkantea hutsik geratu zen.

III.- 2013-06-24an, zerga bilketa exekutiboa kudeatzeko elkarlanerako, GESMUNPAL, S.A., enpresak txostena eman du, aipatutako premiamenduzko prozeduretan burututako ekintzak azalduz enkante faseraino iritsiz, enkantearen emaitzaren berri emanez eta horren ondorioz, Udalak bere alde lursailak eskuratzeko aukera aipatuz, zorren ordainetan.

IV.- 2013-06-27an, Udal Idazkariak txostena eman du GESMUNPAL, S.A.ren txostena aipatuz legez ezarritako baldintzak betetzeari buruz eta adieraziz, Udalaren alde finkak esleitzea Udalbatzarrari dagokiola, beraien esleipen-balioek, aurrekontuaren baliabide arrunten %10a gainditzen dutelako.

Horren ondorioz, Hazienda Batzordeak Udalbatzarrari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Ondoren deskribatzen diren finken esleipena, azaldutako portzentaian eta adierazten den balioan Udalaren alde esleitzeko erabakia hartzea:

LOTE 1: 347.229,17 €

1 LOTEA: AU 24 Edificios, S.L.-k, B20898318, indibisioan 14.030 finkaren gain duen %54'85eko jabetza, eta ondorengo erregistroko erreferentziak dituena: 1. Inskripzioa, 14.030 finka zk, 2184 Liburukia, Beasaingo 245 Liburua, 206 orrialdea, Tolosako 2. Jabetza Erregistroa; IDUFIR 20020000131614.

Finkaren deskribapena: Hiri finka .- B-1 lurzatia .- Udal Ordenantza Orokorraren 9. artikulua arabera, Beasaingo Udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen 8. Sektoreko Birzatatze proiektua Azalera osoa hiru mila zortziehun eta berrogeita hamazortzi metro karratukoa bada (3.858 m²) gehienez ere hiru mila eta lauhun eta lau metro karratu (3.404 m²) okupatu daitezke. Eraiki daitekeen gehienezko azalera sei mila zortziehun eta zortzi metro karratukoa da (6.808 m²), hiru mila lauhun eta lau (3.404 m²) beheko solairuan, mila zazpiehun eta bi (1.702 m²) goiko solairuan eta mila zazpiehun eta bi (1.702 m²) sotoko solairuan izango direlarik. Eraikigarria ez den azalera pribatua lauhun eta berrogeita hamalau metro karratukoa da (454 m²). Mugak: Iparrean, urbanizazioko bidea; Hegoaldean, Estanda erreka; Ekialdean, B-2 lurzatia; Mendebaldean, urbanizazioko bidea.

KARGAK:

- Lursail honek erret eskubide izaerarekin, kooperazio sistematik ondorioztatzen diren karga eta gastuei aurre egin beharko die (Zoru Legearen 100. artikulua eta Hirigintza Kudeaketa Araudiaren 126. artikulua), nahiz hirigintza proiektuan jasotako zorrak eta derrigorrezko xehetasunak.
- Mailegua bermatzeko, "Banco Guipuzcoano, S.A."ren alde hipoteka.

LOTE 2: 648.630,94 €

- 2 LOTEA: Capiresgo Pedrola SL-k, B99071136, indibisioan 14.031 finkaren gain duen %57'97ko jabetza; 14.031 zk-dun finkaren erregistroko erreferentziak: 1. eta 2. Inskripzioak, 14.031 finka zk, 2184 Liburukia, Beasaingo 245 Liburua, 212 orrialdea, Tolosako 2. Jabetza Erregistroa; IDUFIR 20020000131621.

Finkaren deskribapena: Hiri finka .- B-2 lurzatia .- Udal Ordenantza Orokorraren 9. artikulua arabera, Beasaingo Udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen 8. Sektoreko Birzatatze proiektua. Azalera osoa lau mila eta berrogeita hamabost metro karratukoa bada (4.055 m²) gehienez ere hiru mila bostehun eta hirurogeita hamazazpi metro karratu (3.577 m²) okupatu daitezke.

Eraiki daitekeen gehienezko azalera zazpi mila ehun eta berrogeita hamalau metro karratukoa da (7.154 m²), hiru mila bostehun eta hirurogeita hamazazpi metro karratu (3.577 m²) beheko solairuan, mila zazpiehun eta laurogeita zortzi metro karratu (1.788 m²) goiko solairuan eta mila zazpiehun eta laurogeita hamazortzi (1.788 m²) sotoko solairuan izango direlarik. Eraikigarria ez den azalera pribatua lauhun eta hirurogeita hamazortzi metro karratukoa da (478 m²). Mugak: Iparrean, urbanizazioko bidea; Hegoaldean, Estanda erreka; Ekialdean, E-2 lurzatia; Mendebaldean, B-a lur zatia. Katastroko erreferentzia 25S8010, lur zatiaren zenbakia 6031012W.

KARGAK:

- Lursail honek erret eskubide izaerarekin, kooperazio sistematik ondorioztatzen diren karga eta gastuei aurre egin beharko die (Zoru Legearen 100. artikulua eta Hirigintza Kudeaketa Araudiaren 126. artikulua), nahiz hirigintza proiektuan jasotako zorrak eta derrigorrezko xehetasunak.
- PRETERSA INVESTMENT, S.L.ren alde egindako prebentziozko bahiketa oharra.

LOTE 3: 544.783,46 €

3 LOTEA: Capiresgo Pedrola SL-k, B99071136, 14.032 finkaren gain duen 100% jabetza; 14.032 zk-dun finkaren erregistroko erreferentziak: 1. Inskripzioa, 14.032 finka zk, 2184 Liburukia, Beasaingo 245 Liburua, 216 orrialdea, Tolosako 2. Jabetza Erregistroa; IDUFIR 20020000131638.

Finkaren deskribapena: Hiri finka .- C lurzatia .- Udal Ordenantza Orokorren 9. artikulua arabera, Beasaingo Udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen 8. Sektoreko Birzaitzeko proiektua. Azalera osoa mila bederatzehun eta hamazortzi metro karratukoa bada (1.918 m²) gehienez ere mila bostehun eta hirurogei metro karratu (1.560 m²) okupatu daitezke.

Eraiki daitekeen gehienezko azalera hiru mila ehun eta hogeiturogei metro karratukoa da (3.120 m²), mila bostehun eta hirurogei metro karratu (1.560 m²) beheko solairuan, zazpiehun eta laurogei metro karratu (780 m²) goiko solairuan eta zazpiehun eta laurogei (780 m²) sotoko solairuan izango direlarik. Eraikigarria ez den azalera pribatua hirurehun eta berrogeita hamazortzi metro karratukoa da (358 m²). Mugak: Iparrean, urbanizazioko bidea; Hegoaldean, Estanda erreka; Ekialdean, G lurzatia; Mendebaldean, E-1 lur zatia. Katastroko erreferentzia 6266014, lur zatiaren zenbakia 6084184 E.

KARGAK:

- Lursail honek erret eskubide izaerarekin, kooperazio sistematik ondorioztatzen diren karga eta gastuei aurre egin beharko die (Zoru Legearen 100. artikulua eta Hirigintza Kudeaketa Araudiaren 126. artikulua), nahiz hirigintza proiektuan jasotako zorrak eta derrigorrezko xehetasunak.

PRETERSA INVESTMENT, S.L.ren alde egindako prebentziozko bahiketa oharra.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- ORDENANTZA FISKALAK: Beasaingo Loinatz Musika Eskolako, Euskaltegiko eta ludotekako 2013-2014 ikasturterako tasak.

Alkate jaunak (BILDU), hazienda batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan, Euskaltegian eta Ludotekan 2013-2014 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.013ko ekainaren 24an egindako bileran, 2013-2014 ikasturtean Musika Eskolako eta Ludotekako zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

**BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA
2013-2014 IKASTURTEA**

| | <u>Urteko kuota/</u> |
|------------------------------------|----------------------|
| MUSIKA TAILERRA | 195,00 € |
| HASTAPENA | 250,00 € |
| INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA | 670,00 € |
| INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA | 710,00 € |
| M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD | 495,00 € |
| M. LENGOAIA | 250,00 € |
| GAI TEORIKOAK | 250,00 € |
| INFORMATIKA | 250,00 € |
| INSTRUMENTUA EDO KANTUA II. MAILA | 500,00 € |
| INSTRUMENTUA EDO KANTUA III. MAILA | 525,00 € |
| TRIKITIXA | 430,00 € |
| TRIKITIXA | 450,00 € |
| PANDEROA | 310,00 € |
| KANTUA TALDEAN | 225,00 € |

| | |
|---|----------|
| PIANOA + AKONPAINAMENDUA | 770,00 € |
| PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA | 930,00 € |
| IZENEMATEA 14-15 | 42,00 € |
| MATERIALA | 13,00 € |

Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak

2. partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA 2013-2014 IKASTURTEA

| Ikastaroak | Ordu kop. | Prezioa materiala barne |
|--|------------------|--------------------------------|
| Astean 10 orduko ikasturtea 2013/09/26-2014/06/13 | 320 | 434€ |
| Astean 8 orduko ikasturtea 2013/09/26- 2014/06/13 | 281 | 385€ |
| Azterketei begira osatutako taldeak | 120 | 179€ |
| Etorkinentzako AISA ikastaroak | 60 | 34€ |

| | | |
|---|-----|------|
| Autoikaskuntza ikastaroak tutorearekin 2013/09/26-2014/06/13 | 192 | 430€ |
| Udako ikastara 2014/06/23-2014/07/18 | 80 | 115€ |

2013/2014 ikasturtean, orduko 1,28 € kobratuko da.

Materiala 25€. Udako ikastaroan, 12,5€.

Ikasleek matrikularen kopuruaren erdia ikastaroa hasi eta lehenengo hamar eskola-egunetan ordaindu beharko dute. Gainerakoa, hurrengo bi hilabeteetako lehenengo astean egin beharko dute, edo, hala eskatuz gero, hileko 8 kuotatan banatuta.

Udako ikastaroetan, ikastaroa hasi eta lehenengo 7 egunetan ordaindu beharko du.

Ikasturte amaierako beka eskatzeko eskubidea izango dute Beasainen erroldatuta dauden ikasleek eta diru-laguntza horiek emateko, Udal Ordenantzan jasotakoa aplikatuko da.

Ikasleak HABEtik ere jaso dezake diru-laguntzarik. Horretarako, euskara mailak egiaztatzeko HABEk deituko dituen azterketak gainditu beharko ditu.

Udal ludoteketan zerbitzua emateagatiko tarifak

2013-2014 IKASTURTEA

Zerbitzua irailetik ekainera emango da eta dagokion tarifa 62 eurokoa izango da.

2014ko urtarrilean matrikulaldia irekiko balitz, zerbitzuaren erabiltzaile berriek ordaindu beharreko tarifa 31 eurokoa izango da eta zerbitzua otsailetik aurrera emango da.

Udaleko Gizarte Ongizate Sailak sustatutako eskuhartze programetako partaide diren adin txikiko eta gazteei ludotekako tarifa subentzionatuko zaie.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “Voy a seguir la misma línea que he seguido hasta ahora de votar en contra de la subida de tasas, porque estamos viviendo unos momentos muy críticos y las familias no están para subidas de tasas.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Sistematikoki KPIko igoera planteatu izan da bi kasu hauetan, kontutan izanda 2012an udalaren tasa orokorrak ez igo arren ere, KPI igo zela eta oraingo proposamena ere berdina dela. Oraingoan, ordea, bi alderdiok ez dugu justifikaziorik ikusten, kontutan izanda Euskaltegian eta Musika Eskolan, langilearen soldatari dagokiona dela gasturik gehiena. Euskaltegiaren kasuan %93a suposatzen du eta Musika Eskolaren kasuan %97a. Langileen soldataren izozketa dela eta igoera ez zaigu justifikatuta dagoenik.”

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): “Musika Eskolaren finantziazioak hiru hanka ditu: %33a Eusko Jaurlaritzak, %33a Udalak eta beste %33a kuotak. Azken urteotako eboluzioa begiratzen badugu, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaisten ari da, Udalarena igotzen eta kuotak, portzentaiak esan ordez, nik zenbakiak esango dizut. Hilabetean suposatzen du, 0,50 zentimoko igoera, € bateko igoera edo 2 €ko igoera.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposatutakoa.

4.- KONTU OROKORRA. 2012ko Kontu Orokorra onartzea.

Alkateak (BILDU) gaia azaldu du: “Kontuetarako Batzorde Bereziak 2013ko maiatzaren 20an egindako bileran 2.012 ekitaldiari dagozkion kontuak onartu zituen eta 15 eguneko epean jendaurrean egon ondoren ez da alegazio edo erreklamaziorik aurkeztu.

Beraz, 2.012 ekitaldiari buruzko kontuak Udalbatzaren onespenerako aurkeztu behar dira, atal aipagarrienak ondorengoak izanik:

UDALA

- HASIERAKO AURREKONTUA: 13.534.482,87
- BEHIN-BETIKO AURREKONTUA: 17.209.103,66

AURREKONTUAREN GAUZATZE MAILA:

GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA : % 84,02

INBERTSIOAK: Inbertsioen % 48,68a gauzatu da. Baina, hala ere, baimendutako gastua, hau da, lanen esleipenerako prozedura hastearen ondorioz konprometitutako kredituak % 62,13koak izan dira. Eta honi, esleipenean izandako aurrezki gehituz gero, aurreikusitako proiektuen %77,13a gauzatu dela ondorioztatzen da.

SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA : % 84,38

Gauzatze maila txikiagoa, bereziki, INDAR, S.A.ri dagozkion zergei buruzko aurreikuspena, 2012an gauzatu ez izanaren ondorioa da.

DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDAOA: 5.131.139,08 euro

Gerakin honetatik, dagoeneko erabili dira:

- 873.657,91 euro, 2.012an gauzatu ez diren eta 2013 ekitaldian txertatu diren kredituak finantzatzeko, beste batzuen artean: Arana kaleko urbanizazioa (463.860,91 €), Ezkiagako komuna (54.176,83 €), Espaloiak berritzea (49.165,48 €), Ur sarea (48.548,00 €), ...

ONDAREA ETA AZPIEGITURAK

Ondare eta Azpiegituren gehikuntzari dagokionean, 2012 urtean aipagarrienak ondorengoak dira:

Azpiegiturak

- 8. Sektoreko azpiegiturak amaitzea

Eraikin eta eraikuntzak

- Haurtzaindegiko lokala egokitzea
- Bista Alai, 2ko etxebizitzak, hirigintzako probetxamenduaren ordainetan jasotakoak.
- Igartzan egindako obrak.

Bestelako instalazioak:

- Fusilatuen omenezko eskultura.

Ibilgailuak:

- Udaltzaingoaren autogarabia.

ZORPETZEA

2012ko ekitaldiaren amaieran Udalak finantza erakundeekin zuen pasiboa 5.814.369,07 eurokoa zen, eta eragiketa horien ondoriozko zorpetze maila %4,05koa.

Aipatu behar dira ere, Foru Aldundiari zordundutako 595.671,34 euroak, 2009ko Foru Fondoaren likidaziotik ondorioztatutako saldo negatiboa itzultzeko onartutako gerorapenarengatik, 2013 ekitaldian itzuli beharrekoak.

BEASAIN LANTZEN, S.A.

Beasain Lantzen, S.A.ren jarduera nagusiak Olaraneko Babes Ofizialeko 21 etxebizitzak amaitzea, Kiroldegiko konponketak eta errentan dauden etxebizitzak kudeaketa izan dira.

Saldu gabe jarraitzen dute 6. Sektoreko 2 pabiloiak eta Osasun Zentroko 4 garajeak ere.

Ekitaldia 263.652,28 euroko galerekin likidatu da.

Bozketa eginda, aho batez behin-betiko onartu da 2012ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra.

5.- UDAL AURREKONTUA EXEKUTATZEKO ARARUAREN II ERANSKINA. Aldi baterako pertsonala kontratatzeke araudia.

Alkatea jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKONTUA GAUZATZEKO UDAL ARAUDIA

II ERANSKINA: ALDI BATERAKO PERTSONALA KONTRATATZEKO ARAUDIA (ABENDUAREN 27KO, 17/2012 LEGEAREN 23. BI ARTIKULUA, 2013. URTERAKO ESTATUKO AURREKONTU OROKORRAK).

*Aldi baterako pertsonalaren kontratazioari dagokionean, kontutan izan behar da, abenduaren 27ko, 17/2012 Legearen 23 artikuluko bigarren atalak, 2013. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorri buruzkoak, ezartzen duen **muga**.*

Hain zuzen ere, aipatutako 2013. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ondorengo xedatzen du: " ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariarik izendatuko ere, **salbuespenezko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken hauek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategorietara mugatuko dira.**

Aipatutako albuespenak, Hazienda eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren aurretiko eta esanbidezko baimena beharko du estatuaren eremuan.

Toki-mailan ez da xedatzen aurretiazko baimenaren beharra, baina oinarritzko izaera duen idatz-zatia izanik, eta beraz, Toki Administrazioa osatzen duten erakundeei dagokiena, Korporazio bakoitzak xedatu beharko ditu aldi baterako pertsonala kontratatzea dagozkion kasuak, Aurrekontua Gauzatzeko Oinarrietan edo barne kontrolerako Araudietan zehaztuz.

Beasaingo Udalak barne erregimenerako Araudirik ez duenez, Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araudian xedatu beharko ditu 2013 urtean aldi baterako pertsonala kontratatzeko irizpide orokorrak, eta horietan oinarrituta Alkatearen eskumena izango da kontratazio berri bakoitzaren justifikazioa.

Horren arabera Udalak 2013. urtean aldi baterako pertsonala kontratatu ahal izango du, dagokion aurrekontu-kreditua aurreikusi ondoren, beti ere, Langileen Estatutuan xedatutakoa eta gainera 17/2012 Legearen 23.bi artikuluko baldintzak betez, hau da:

Beharrezko zerbitzuaz gain, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzuak izango dira, baliabide pertsonalaren ezak, herritarren beharretan eta udal zerbitzu departamentuen funtzionamenduan eragin berezia dutenak. Gainera, premiazkoak eta luzaezinak izateko xehetasun hauetako bat eman beharko da:

1.- Langilearen aurreikusitako ausentzia hilabete gainditzea eta bi langileek osatutako departamentuetan izan ezik, arlo bakoitzeko langile kopuruaren arabera, ordezkapena gutxienez bi pertsona falta direnean emango da (kasu honetan langile bat bakarrik ordezkatu da).

Hala ere, langilearen zeregina musika eskolan klaseak ematea denean, langile baten ausentziak kontratazio berri bat ekarriko du, baldin eta dauden Giza Baliabideekin matrikulatuta dauden ikasleei zerbitzua eman ezin zaienean.

2.- Erret Dekretu Legegilearen aurretik arloan pertsonala falta dela egiaztatuta egotea eta kontratatu nahi den pertsonala kontratazio administratiboen osagarria izatea.

3.- Pertsonalaren faltak herritarren segurtasuna eta osotasuna eta udal ondasuna arriskuan jarri dezaketean, momentu puntualetan, hala nola, jaietan, antolatutako ekintza desberdinetan, lana pilatzen denean.

4.- *Diziplina urbanistikoko arrazoiak, herritarren segurtasunean edo udal eraikinen hondatze larrian eragin dezaketenak.*

5.- *Ezinbesteko kasuetan, gerora sortutako arrazoiak direla medio, dagoen pertsonala baino gehiago behar izatea eragiten duenean.*

Aurreko guztia ez da aplikatuko, Udalak irtenbidea eman duen kasuetan kontratazio laboralaren bidea erabili gabe, baina toki entitateak eman beharreko zerbitzuari erantzuna eman zaionean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“Aurrekontua gauzatzeko udal araudiaren aldaketari hasierako onespena ematea, 2013. urtean aldi beterako pertsonala kontratatzeke irizpide orokorrak ezartzeari buruzko, II Eranskina erantsiz.

Abenduaren 19ko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauren 15, 17 eta 18 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, jendaurrean jarriko da hamabost laneguneko epean iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, aipatutako aldaketa onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.”

6.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA. 2013. urterako luzatzea.

Alkate jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

“GAIA: EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN) PLAN ESTRATEGIKOA LUZATZEA.

AURREKARIAK:

Beasaingo Udalak, 2007ko martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) 2007-2011 eperako plan estrategikoa onartu zuen. Beraz plangintzaldia amaituta plan estrategiko berria egiteari ekin beharko geniokeen 2012. urtean, baina urte betez luzatu genuen aurreko plangintzaldia. Eta ondorioz, 2013an berritu behar genuen.

2013an, ordea, unearren bezezitasuna aintzat hartu beharra daukagu, izan ere, Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku-Batzordearen laguntzarekin, Euskara sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) landu zuen eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2012ko uztailaren 24an. Hala ere Legebiltzarrean onartu bitartean, Herri administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzatik begi onez ikusiko lukete indarrean zegoen plana luzatzea.

Bestetik, Beasaingo udalean ondorengo EBPNeen eragina izango duten beste bi proiektu lantzen ari gara: Euskararen Udal Ordenantza eta kale erabileraren neurketa.

PROPOSAMENA:

Kultura eta euskara batzordeak Udaltzari ondorengoa proposatzen dio: Beasaingo Euskara Biziberritzeko Planaren 2007-2011 aldirako plan estrategikoa 2013ra luzatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

7.- IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA ERABILTZEKO ARAUDIA.

Hasierako onepena.

Alkate jaunak (BILDU) Kultura eta Euskera Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Igartzako Monumentu Multzoa erabiltzeko araudia onartzea.

AURREKARIAK

- I. Igartza Monumentu Multzoko birgaitze lanak amaitu ondorenean, parte hartze prozesu bat sustatu zuen Udalak, Igartzako Monumentu Multzoari eman beharreko erabilera zehazte aldera.
- II. Parte hartze prozesua, eta Igartzari eman beharreko erabilera, hiru zutoinetan oinarritutakoa ikusi du Udalak: ondarearen transmisioa ikastetxeei lotua, turismoa eta merkataritza eta kultura.
- III. Erabili ahal izateko, besteak beste, beharrezkoa da araudi bat.
- IV. Araudiaren zirriborroa, Igartzako batzordekideei eta herriko elkarteei bidali zitzaizen beren ekarpenak egin zitzaizten.
- V. Ekarpenean eta aldaketa proposamen batzuk jaso ziren eta gehienak onartu eta orain aurkezten den araudian jaso ziren.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeria aplikagarria

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki araubidearen oinarriak erregulatzen dituena:

- 22.2 d) artikulua, onartzeko eskuduntza Udal Osoko Bilkurari ematen diona.
- 49. artikulua, ordenantza onartzeko jarraitu beharreko prozedurari dagokiona.

Horren ondorioz, Igartzako Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehena. - Igartza erabiltzeko araudiari hasierako onespina ematea.

Bigarrena. - 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena. - Aipatutako epean inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako onspen erabakia behin-betiko erabaki bihurtuko litzateke.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da ondorengo erabakia hartu da:

Lehena. - Igartza erabiltzeko ondorengo araudiari hasierako onespina ematea:

“Igartzako Monumentu Multzoa erabiltzeko araudia

1. Xedea.

Beasaingo udalarena den **Igartzako Monumentu Multzoaren** erabilera eta funtzionamendua arautzea da ondorengo araudiaren asmoa eta helburua. Araudiak Udala eta Igartzako Monumentu Multzoko erabiltzaileen arteko harremanari eragiten dio.

Araudi honek Igartza Monumentu Multzoko eraikin hauei eragiten die:

- .- Jauregia
- .- Burdinola
- .- Errota
- .- Belengo ermita

2. Helburuak: Zertarako erabili.

— **Igartzako Monumentu Multzoko aretoak** kultura ekintzak, kongresuak, bilerak, ezkontzak, jardunaldiak, batzarrak etab. egiteko aretoak dira. Burdinolan hileta zibilak ere, egin ahal izango dira.

— Ekimen horiek izango dira bai Udalak berak zuzenean antolatutakoak edota elkarte edo enpresaren batekin batera, eta baita irabazi asmorik gabeko herriko talde, elkarte edo entitateek antolatutakoak ere, betiere Udalak horrela onartuko balu eta adieraziko zaizkien baldintzetan.

Bestelako talde, elkarte zein enpresak antolatutako ekimenak ere, egin ahal izango dira, udalak eskaera aztertu eta baimena ematea erabakiz gero, eta adierazitako baldintzetan.

—**Igartzako Monumentu Multzoan** ezingo da gune pribaturik sortu, ezta aretoa egoitza sozial bezala erabili ere.

—Dena den, Udalak antolatutako jarduerak izango dute lehentasuna beti, eta Udaletik kanpoko bi eskaera badaude, lehentasuna izango du eskaera lehenengo egin duenak.

—Atal honetan jasota geratu ez diren erabileren kasuak Igartzako Batzordeak erabakiko ditu.

3. Erabiltzeko modua.

3.1. Eskabidea, idatziz.

Aretoak erabili ahal izateko idatziz egin beharko da eskaera eta bi modu daude horretarako:

1. *Paperean*: Udalak prestatutako inprimakia erabiliko da. Inprimaki hori Udaletxeko Erregistro Orokorrean edo Udaleko web gunean eskuratu ahal izango da eta Udaletxeko harreran aurkeztu beharko da.

2. *Telematikoki*: www.igartza.net helbidean sartuta eta bertan adierazten diren datuak beteta.

Eskaera aurkeztearekin ulertuko da eskatzaileak araudia ezagutu eta onartzen duela, eta betetzeko konpromisoa hartzen duela.

3.2. Erakundeko arduraduna.

Inprimakian eskatzen diren datu guztiak bete beharko dira.

Eskaera egiten duena izango da, edozein gertaeraren aurrean, ekitaldiaren erantzulea. Eskatzailea pertsona fisikoa den kasuetan ezinbestekoa izango da pertsona horren datu guztiak zehaztea inprimakian. Eskatzailea entitate, elkarte edo enpresa den kasuetan, bere datuez gain, haren ordezkariaren eta aretoan presente egongo den pertsonaren datu guztiak adierazi beharko dira ezinbestean.

Ordezkarria eta aretoan egongo dena bi pertsona diferente direnean azken hau izango da aretoko udaleko langileen solaskidea erabiltzailearen izenean.

3.3. Behar teknikoak.

Bai eskabidean bertan, bai eranskin batean, ekitaldirako behar diren baliabide teknikoak adierazi beharko dira (Aretoak ematen dituen aukerak aintzat harturik).

Aretoko argiztapena eta soinu sistemaren premia dagoenean, udalak jarritako arduradunak ipiniko ditu.

Aretoak ez dituen baliabideak erabiltzaileak berak jarri beharko ditu eta bere kontura izango da horrek eragingo dion gastua.

Halaber, adierazi beharko du sarreren salmentarik dagoen edo ez, eta balego, prezioa.

3.4. Ordutegia:

Eskaeran ekitaldiaren ordutegia adierazi beharko da (hasiera eta bukaera orduak) eta aretoaren erabilera ordutegia (hasiera eta bukaera orduak), eta muntatze eta desmuntatze lanak noiz hasi eta bukatuko diren.

Igartzako Monumentu Multzoa, oro har, ondorengo ordutegi honen barruan erabili ahal izango da: 09:00 - 22:00.

Honek suposatuko du amaiera ordurako libre utzi beharko dela aretoa. Dena den antolatutako ekintzaren arabera ordutegi hau murriztu edo zabaldu ahal izango du espresuki Udalak.

3.5. Uzte edo lagatzearen baieztapena.

Aretoa erabiltzeko eskabideen aurrean Alkateak, edo honek eskuordetutako organoak; egoki iritzitako erabakiaren jakinarazpena bidaliko dio eskatzaileari.

Bertan, eskaera onartzen bada, aretoa erabiltzeko baldintzen, ordutegiaren, eta bestelakoen berri jasoko du eskatzaileak idatziz.

3.6. Erabileragatik ordaintzea.

Aretoa erabiltzeko udal baimena eskuratzeko, besteak beste, dagokion tasa ordaindu beharko da, udal ordenantza fiskaletan jasotakoaren arabera. Udalak erabaki dezake, hitzarmena duten irabazi asmorik gabeko herriko talde, elkarte edo entitateak ordaintzetik salbuetsita geratzea.

Ekitaldi eguna baino lehenago egin beharko da ordainketa, Udaleko Diruzaintzan.

Ordainketa egiten ez bada, baimena bertan behera geratuko da eta udalak kalte-ordainak eskatzeko eskubidea izango du.

4. Igartzako Monumentu Multzoaren erabileraren arau orokorrak.

4.1. Aretoa erabiltzeko baimena eman ondoren, Udala harremanetan jarriko da eskabidea egin duenarekin, behar diren alderdiak zehazteko.

4.2. Ekitaldiaren ondoren, aretoa jasotako moduan utzi beharko du eskatzaileak.

4.3. Eskabidean segurtasun-arauak beteko dituela hitz eman beharko du eskaera egiten duen eskatzaileak, bereziki sua erabiltzeari eta ateak eta larrialdietarako irteerak oztopatzeari dagozkienetan, eta aretoko arduradunek ematen dizkioten jarraibideak aintzat hartu beharko ditu.

4.4. Inolaz ere ezingo da gainditu aretoan gehienez sar daitezkeen pertsonen kopurua. Ziurtasun planean dago zehaztuta kopuru hori.

4.5. Debekatuta dago Igartzako Monumentu Multzoko aretoetan erretzea. Zigarrokinak horretarako, kanpoko aldean, jarrita dauden edukiontzietara bota beharko dira.

4.6. Debekatuta dago, aretoak hartarakoxe jarritako lekuetatik kanpo, kartelak, pegatinak e.a. jartzea. Halaber, eraikinaren hormetan, sabaian edo zutabeetan ezingo da panelik edo beste ezer jarri –ez iltzeekin ez zintzilik–, ez bada horretarako espresuki jarritako guneetan. Eta ezingo zaie instalazioei, altzariei edo beste material batzuei ere inolaz eragin.

4.7. Instalazioan ezingo da surik egin eta ez da baimenduko partikula goriak sortzen dituen jarduerarik, ez muntaia lanetan, ez entseguetan ezta emanaldietan ere, guztia arriskuen prebentziorako araudiak dioenari jarraituz.

4.8. Udalak ez du inongo erantzukizunik hartzen beregain, baimena eskatu dutenek, beraien ondasunak galdu edo kalteak jasotzeagatik.

4.9. Antolatzaileak jarritako pertsonala aretoko arduradunaren esanetara egongo da eta azken horrek aretoaren erabilera zuzena eta egokia emateko behar diren neurriak hartu edota agindu ahal izango ditu.

4.10. Burutu nahi den ekintza Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen 4/1995 Legearen (edo etorkizunean lege hori ordezkatzeko duenaren) menpe badago, lege horrek dioena ere bete beharko da, eta ez-betetzeak indarrean dagoen legeari jarraituz zigortuko dira.

4.11. Arau hauek direla eta, edozein salbuespen egiteko, Udalaren idatzizko baimena beharko da.

5. Eskatzailearen derrigorrezko eta ezinbesteko betebeharrak.

5.1. Baimendutako ordutegia errespetatzea.

5.2. Aretoko altzariak errespetatu eta egoki erabiltzea.

5.3. Aretoa egoki erabiltzea eta zaintzea.

5.4. Aretoko ordena eta garbitasuna errespetatzea.

5.5. Ekitaldia Beasaingo Udalak diruz lagundutakoa bada, aretoan egingo den ekitaldiari buruzko soinuzko nahiz idatzizko iragarpen orotan Beasaingo Udalaren laguntza izan duela adierazi beharko du, eta, haren logotipoa jarri.

5.6. Beasaingo Udalaren Hizkuntz Politikako irizpideak jarraitzea, idatziz sortzen diren material guztietan (kartel, diptiko, eskuliburu, apunte etab.) euskarari lehentasuna emanda.

Aurkezpen, hitzaldi, prentsaurreko, mahai-inguruetan eta antzekoetan euskarak lehentasuna izango du.

Publizitatea euskaraz izango da, edo elebidun, beti ere lehentasuna euskarari emanaz. Udalak hizkuntzari dagozkion arlo guztietarako bere laguntza eta lankidetzak eskainiko ditu.

5.7. Aretoa erabiltzearen ondorioz sortzen diren erreklamazioei erantzutea, Udalak egindakoei ere bai.

5.8. Ikuskizunerako sarrerarik ez kobratzea Udalaren baimenik gabe, edo Udalak baimendutako baino prezio garestiagoak ez kobratzea.

5.9. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betetzea.

5.10. Aretoran egindako ikuskizuna dela-eta «Egile Eskubideei» dagokiona ordaintzea.

5.11. 375 euroko fidantza jartzea.

6. Hutsegiteak.

Hutsegiteak honela kalifikatzen dira:

a) Oso larriak:

1. Norbanako, elkarte edo talde batek Igartzako Monumentu Multzoa egoitza sozial bezala erabiltzea.

2. Udalaren baimenik gabe Igartzako aretoaren bat erabiltzea, pertsona edo ondasunak arriskuan jarritz.

3. Aretoran dauden instalazioak arduragabekieraz erabiltzea.

4. Aretoko instalazioren bat erabilera okerraren ondorioz apurtu edo matxuratzea, edo ekitaldiaren ondoren aretoa ekitaldiaren aurretik jaso den baldintza berberetan ez uztea.

5. Udalari egindako eskaeran zehazten den emanaldirako ez, beste baterako erabiltzea aretoa.

6. Urte berean bi hutsegite larri pilatzea.

b) Larriak:

1. Udalak izendatutako arduradunik aretoan izan gabe, aretoa erabiltzea.

2. Aretoa erabili ondoren zikin uztea.

3. Aretoko instalazioren bat apurtzea.

4. Aretoa erabiltzeko ezarritako ordutegia ez errespetatzea.

5. Ikuskizunerako sarrera kobratzea Udalak horretarako baimenik eman ez duenean, edo Udalak baimendutako prezioan baino garestiago jartzea sarreren prezioa.

6. Urte berean bi hutsegite arin pilatzea.

c) Arinak:

1. Larria edo oso larria ez den araudi honen beste hutsegiteak.

7. Penalizazioak.

Igartzako Monumentu Multzoa behar den bezala ez erabiltzeak eta aurreko artikuluan xedaturiko hutsegiteek dagokien penalizazioa izango dute:

1. Araudi honetako hutsegiteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira penalizazioak:

a. Hutsegite arinak: 750 euro arteko isuna eta/edo erabiltzeko baimena baliogabetzea eta, ondorioz, instalazioa erabili ezina 6 hilabetera arteko epean.

b. Hutsegite larriak: 751 eta 1.500 euro arteko isuna eta/edo aurrerantzean aretoa erabiltzeko baimenik ez izatea, 2 urtera arteko epean, gertakarien larritasunaren arabera

c. Hutsegite oso larriak: 1.501 eta 3.000 euro arteko isuna. Eta aurrerantzean aretoa erabiltzeko baimenik ez izatea gutxienez 2 urteko epean.

2. Penalizazioak jarri aurretik, 10 eguneko entzunaldia emango zaio Aretorearen erabilerarako eskaera egin duenari, egindakoaren eta hauen kalifikazioa eta penalizazioaren proposamenaren berri emanez.

3. Aretoran edo/ eta Udalari eta hirugarrenei kalteak eragin balira hauek ordaintzeko derrigortasunetik eta erantzukizunetik ez du salbuesten isuna ordaindu izanak eta erreklamazio honek bere prozedura eramango du.

4. Araudi honetan ezarritako zigorren zenbatekoak Tokiko Gobernu Batzarrak proposatu eta Alkatearen dekretu bidez eguneratuko dira eta eragina izango dute ebazpenean zehaztutako datatik aurrera.

5. Goian jasotako penalizazioak bateragarriak dira 4/1995 legeak dioena ez betetzegatik jarri daitezkeen zigorrekin.

Azken erabakia.

Araudi hau Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean agindutakoaren arabera jarriko da indarrean."

Bigarrena.- 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea erreklamazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarrena.- Aipatutako epean inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako onespene erabakia behin-betiko erabaki bihurtuko litzateke.

8.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, irakaskuntza arautuaren eremuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeek egindako jarduerak eta proiektuetarako.

Alkate jaunak (BILDU) Kultura eta Euskera Batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Beasaingo ikastetxeei 2013-2014 ikasturtean eman beharreko dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartzea.

AURREKARIAK

Irakaskuntza arautuaren eremuan irabazi asmorik gabe diharduten ikastetxeek egindako jarduerak eta proiektuetarako dirulaguntzak arautzeko asmoz idatzi dira oinarri hauek.

Deialdi honen xedea ikastetxeek euskararen erabilpena areagotzeko egindako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko dirulaguntzen baldintzak erregulatzea da.

Dirulaguntza hauetarako 2013-2014 ikasturtean egingo diren jarduerak hartuko dira kontuan.

Oinarri hauen babeseko jarduerari diru-laguntza emateko Kultura eta Euskara sailaren 2013ko aurrekontuko 30.481.455.10.01 kontusailetik 4.572, euro erabiliko dira.

Hori dela eta, ondorengo proposamena egiten dio Kultura eta Euskera Batzordeak Udalbatza Osoari:

Oinarri hauek onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo oinarriak onartu dira:

DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI ARAUAK, IRAKASKUNTZA ARAUTUAREN EREMUAN IRABAZI ASMORIK GABE DIHARDUTEN IKASTETXEEK EGINDAKO JARDUERA ETA PROIEKTUETARAKO.

1.-XEDEA

Deialdi honen xedea da irabazi asmorik gabeko Beasaingo ikastetxeek euskararen erabilpena areagotzeko egindako jarduerak eta proiektuak finantzatzeko diren diru-laguntzak emateko baldintzak erregulatzea.

Diru-laguntza xedea izango dute 2013-2014 eskola ikasturteko jarduera programek.

Halaber diru-laguntza xede duten jarduerak izaera hau izango dute:

- 1) Ikastetxeek egindako hezkuntza, kultura eta kirol arloko jarduerak, eskolako hezkuntza proiektuak, berritzailetzat jotzen den material didaktiko ez ohikoa, bai eta ere, Udalak aurretik aztertuta, nahiz eta entitate publikoek finantzatu ez, gizartearentzat garrantzitsuak diren hezkuntza zerbitzuak.*
- 2) Eskola komunitatean euskararen erabilera sustatzeko jarduerak edo programak.*

Ez dute diru-laguntza xederik izango jarduera edo kontzeptu hauek:

- 1) Azpiegiturako obrak, inbertsioak, ondasun higiezinak erostea eta altzariak eta ekipamendua erostea.*
- 2) Ikastetxeen mantentze eta funtzionamendu gastuak.*
- 3) Jarduerak, proiektuak eta prestakuntza ikastaroak egiteko, irakasle titularren gastuak. Edonola ere, onartuko dira diruz laguntzeko modukoak bai irakasle horien ordezkatzeko gastuak nahiz jarduera egiteko berariaz kontratatutako bekadunen gastuak ere.*
- 4) Ikastaroak, proiektuak eta jarduerak garatzeko, irakasleek egindako bidai gastuak eta dietak, baina bai sartzen dira ikastaro edo jarduera horien matrikulazio gastuak.*
- 5) Udalaren iritziz beste laguntza programa batzuetan hobeto egokitzen diren dirulaguntzak.*

2.- ONURADUDAK

Diru-laguntza eskatu dezakete irabazi asmorik gabeko erakundeak, irakaskuntzan ari direnak eta Beasainen egoitza dutenak, betiere haien jarduera bat badator deialdi honetako helburuarekin.

3.- DIRU-LAGUNTZA ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira nahitaez:

- a) Eskabide-inprimakia*
- b) Proiektu edota jarduera azalduko duen txostena*
- c) Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena*

- d) Egiaztatzea zerga obligazioak betetzen dituela Gizarte Segurantzarekin, Beasaingo Udalarekin eta haren erakunde autonomoekin eta Foru Ogasunarekin.
- e) Helburu horretarako beste diru-laguntzarik jaso bada, horren berri eman beharko zaio Udalari.

Onuraduna ekimen horretarako beste erakunderen baten diru-laguntza jaso edo jasotzekoa izanez gero, horren azalpen zehatza egin beharko du. Edozein modutan ere, diru-laguntzen baturak ezingo du gastuaren %100 gainditu.

4. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- a) Programaren edo jardueraren oihartzuna.
 - 1.- Programaren edo jardueraren hezkuntza eta gizarte errentagarritasuna.
 - 2.-Jarduera eta programan parte hartu dutenen kopurua.
 - 3.- Programa horrek herriko gainerako eragileengan duen eragina.
- b) Osagarritasuna, ikastetxearen beraren hezkuntza proiektu globalari buruz.
- c) Euskara normaltzeko sustapena.
- d) Aurkeztu diren proiektuen berrikuntza eta kalitate pedagogiko eta teknologikoa.
- e) Antolaketa, egitura eta ekonomia ahalegina proiektua edo jarduera egiteko.
- f) Programaren zehaztasun eta errealismo maila, edukietan nahiz helburuetan, bai eta jardueraren kalitatea, originaltasuna eta egokitasuna ere.
- g) Eskatzaileari dagokionez, beste finantzabide batzuetara jotzeko, eskatzaileak egiaztatzen duen zailtasuna eta eskatu den dirulaguntzaren proportzioa, entitate eskatzailearen berezko baliabideak.

Egitasmoaren izaera kontuan izanda, zerbitzu hori Udalak edo udal zerbitzuren batek emateko modukoa bada, udalak emango dio. Eta udalak ezintasuna adieraziko balu beste erakundeei eskatuko zaie zerbitzua eskaintzea.

Orokorrean, diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoa ez da izango jardueraren kostuaren %30 baino handiagoa. Edonola ere, salbuespenez eta kontuan izanda planteatu den jardueraren izaera, laguntza portzentaje handiagoa baimendu ahal izango du Udalak berariaz.

Eskabideak edo harekin doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu gabe dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek, Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu ez badira, ez da onartuko eskabidea, eta beste tramiterik gabe artxibatu egingo da prozedura.

5.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

2013/2014 ikasturterako diru-laguntza eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratzen denetik 2013ko urriaren 31 bitartean aurkeztu daitezke.

6.- IZAPIDETZEAZ ARDURATUKO DEN ADMINISTRAZIO UNITATEA

Kultura eta Euskara administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

7.- AURREKONTUA

Udalak, indarrean dagoen 2013ko aurrekontuan, behar adinako kreditua du diru-laguntza honen xede diren jardueri erantzuteko. Euskara aurrekontuko, 30.481.455.10.01 kontu sailean, 4.572,00 euro.

8.-DIRU-LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Burututako jarduera edo ekintzari buruzko memoria zehatza.*
- b) Gastuen justifikazioa. Gastuak justifikatzeko, jatorrizko fakturak aurkeztu behar dira.*
- c) Eskabideak aurkezteko momentuan hartuko zituztenik ez jakiteagatik adierazi gabe utzi eta, ondoren, xede berberaz jasotako gainerako laguntzen aipamena.*

Edonola ere, 2014ko uztailaren 30a izango da dokumentuak aurkezteko azken eguna.

9.- ORDAINKETA

2013/2014 ikasturteko eskola jarduera programak, honela ordainduko dira: diru-laguntza ematea erabaki eta gehienez hilabeteko epean ordainduko da diru-laguntzaren %60 eta jarduera amaitu, memoria aurkeztu eta gastuen zuriketa egin ondoren, gainerako %40a.

10.- KLAUSULA GEHIGARRIA

Oinarri espezifikoa hauetan jasotzen ez dena dirulaguntzak arautzeko udal ordenantzak adierazten duena aplikatuko da (GAO, 2004-02-13).

9.- ARANGOITI EGOITZAN BIZILAGUNEN ORDEZKARIA IZENDATZEA.

Alkatea jaunak (BILDU), ezagutzera eman du, gizarte-ongizate batzordeko proposamena, hau da:

“Arangoiti Fundazioko Estatutuak 11. artikuluan Patronatuaren konposaketa jasotzen du, eta bertan adierazten denaren arabera Patronatuko kideatariko bat Beasaingo bizilagunen ordezkaria izango da.

Era berean estatutuen 12. eta 13. artikuluek diotenez, Bizilagunen ordezkaria Patronatuak aukeratuko du Udalak proposatuta eta bere kargua lau urteko denboraldirako izango da.

Josu Aramburu Oyarzabal J.ak arrazoi pertsonalak zirela eta Arangoiti Fundazioko Patronaturako bizilagunen ordezkari karguari uko egin zion 2013-01-17ko data duen idatzian.

Guzti hori dela eta bilduek 2013-06-20an egindako Ongizate Batzordeko bileran Arangoiti Fundazioko Patronaturako bizilagunen ordezkaria ondorengo pertsona izatea proposatzen dute:

- JOSE IGNACIO SANCHEZ TORRES”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, honelakoak aurkeztu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Ez legote gaizki Josu Aranburuk egindako lana onartzea eta eskertzea. Hori Udalbatzari dagokio eta ez soberan ez dagoela iruditzen zait.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk berari pertsonalki eskertu diogu. Berarekin egon garenetan eskertu zaio berak egindako ekarpen eta erakutsi duen jakituriagatik. Baina bai, ondo dago Udalbatzaren errekonozimendua adieraztea.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

10.- GOIMENen ORDEZKO ORDEZKARIA IZENDATZEA.

Alkatea jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

“2011ko urriaren 6an egindako Udalbatza Osoan, GOIERRIKO MENDI NEKAZARITZA ELKARTEAN, ondorengo ordezkari titularra eta ordezkoa, hurrenez hurren izendatu ziren:

M^a MAR CELAYA GONZALEZ
IÑAKI SALDAÑA HERRERO

2013ko urtarrilaren 17an, Udalbatza Osoan, Iñaki Saldaña Herrero jaunak zinegotzi karguari uko egin zio eta 2013ko martxoaren 7an egindako Udalbatza Osoan, Idoia Baztarrika Prieto andreak zinegotzi karguaren jabetza hartu zuen.

Horren ondorioz, Udalbatza osoari proposatzen zaio, GOIMENen ordezeko ordezkaria, ondorengoari izendatzea:

IDOIA BAZTARRIKA PRIETO

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Julio Herreros jaunak adierazi du, bera abstenitu egingo dela.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

11.- ORGANISMO AUTONOMOETAN ORDEZKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Alkatea jaunak (BILDU), proposamenaren berri eman du:

“Gaia: organismo autonomoetan ordezeko ordezkariak izendatzea.

2011ko azaroaren 3an, organismo autonomoetako batzar errektoreetako ondorengo kide titularrak onartu ziren:

UDAL EUSKALTEGIA

Lehendakaria: Aitor Larburu Izaguirre (BILDU) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

Lehendakariordea: Euskara-batzordeburua den zinegotzia izango da (estatutuen 8. artikulua), hau da, ARALARko zinegotzia den, Unai Baztarrika

Otegi (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez).

Partaideak: EAJren aldetik, Enkarni ArrietaTelleria, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M^a Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna.

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

Lehendakaria: Asier Sarriegi Zumarraga (BILDU) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

Lehendakariordea: Kirol-arloko arduradun den zinegotzi ordezkaria edota berak izendatutako Kirol-batzordeko edozein partaide (estatutuen 6.b artikulua).

Partaideak: EAJren aldetik, Iñigo Arrese Artabe, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M^a Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna eta ARALARen aldetik, Unai Baztarrika Otegi.

MUSIKA ESKOLA

Lehendakaria: Unai Baztarrika Otegi (ARALAR) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

Lehendakariordea: Kultura-arloko arduradun zinegotzia edota bere ordezkari izendatutako udalbatzako edozein partaide (estatutuen 5.b artikulua).

Partaideak: BILDUren aldetik, Cecilia Herrador Garin, EAJren aldetik, Eva Diaz del Rio, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M^a Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna.

Orain ordea, Udal Euskaltegirako ondorengo ordezkariak (azaltzen diren ordenan) izendatzea proposatzen zaio Udalbatza Osoari:

| | BILDU | EAJ | PSE-EE/PSOE |
|----------------------|--|----------------|--------------------|
| EUSKALTEGIA | Zezenia Herrador Asier Sarriegi M ^a Mar Celaya Koldo Agirre | Aitor Aldasoro | Alfonso Segade |
| KIROLDEGIA | Aitor Larburu Koldo Agirre M ^a Mar Celaya Idoia Baztarrika Zezenia Herrador | Aitor Aldasoro | Alfonso Segade |
| MUSIKA ESKOLA | M ^a Mar Celaya | Aitor Aldasoro | Alfonso Segade |

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

12.- EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOETAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAREN INDARRALDIARI EUSTEKO ITUNA (UDALHITZ 2008-2010).

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo proposamenaren berri eman du, adieraziz langileekin adostutakoa dela, funtzionarioak ez diren langileak babesik gabe ezin ditugulako utzi:

“EUSKAL ERAKUNDE PUBLIKOETAKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN AKORDIOAREN INDARRALDIARI EUSTEKO ITUNA (UDALHITZ 2008-2010)

Beasainen, 2013ko uztailaren batean

BATU DIRA

Alde batetik, alde instituzionalaren izenean KOLDO AGIRRE MUJICA jna. (Alkatea) BILDU eta AITOR LARBURU IZAGIRRE jna.(Zinegotzia) BILDU, eta bestetik LANDER MARTIN AMONDARAIN jna. (LAB); JULE ARANBURU MARIEZKURRENA and.(LAB) eta SUSANA VELAZQUEZ RODRIGUEZ (ELA/STV) and. (BEASAINGO UDALA; ANTZIZAR KIROLDEGI ERAKUNDEA; BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA eta BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA), aipatutako erakundetako udal langileen ordezkari gisa,

AZALDU DUTE

2008ko irailaren 22an, Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lanbaldintzak Arautzen dituen Akordioa sinatu zen 2008-2010 urteetarako, eta 2008ko abenduaren 2ko EHAAn argitaratu zen, eta gure erakundeak 2008ko urriaren 30. eko Udalbatzako akordio baten bitartez, adhesioa sinatu zuen.

Aipatutako Akordioko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erakundeko gobernu-organo eskumendunak Akordioa berariaz eta modu formalean onartu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, 2010eko abenduaren 31ra arte, eta aldeetako edozeinek aipatutako indarraldia salatu ahal izango du data horretatik aurrera.

Akordioaren gehienezko indarraldiaren epea iraungitzen denean, eta behin indarraldia salatuta, Akordioaren aplikazioak bere horretan jarraitu du data horretara arte, juridikoki aplikagarriak ziren arlo guztietan, ulertu baita klausula arautzaileak erabat aplikagarriak direla; eta hori, marko erregulatzailearen negoziatorako kontaktuak hasi izanari kalterik egin gabe, horrek oraindik emaitzarik sortu ez badu ere.

Hala ere, lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legea indarrean sartu izanak aldarazi egin du Langileen Estatutuko hitzarmen kolektiboetako ultrajardueraren idazketa erregulatzailea. Horrela, hitzarmen kolektiboaren indarraldia, behin salatuta eta itundutako iraupena amaituta, hitzarmenean bertan ezarritako terminoetan gauzatuko dela esan ohi den arren, finkatu dena hauxe da: hitzarmen kolektiboa salatu eta urtebetera oraindik ez bada hitzarmen berririk adostu, lehenengoak indarraldia galduko duela eta, halakorik balego, dagokion esparru handiagoko hitzarmen kolektiboa aplikatuko dela, bestelako itunik adosten ez baldin bada. Aipatutako legezko araua indarrean sartzean dagoeneko salatu diren hitzarmenen kasuan, eta Laugarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritik, urtebeteko epe hori 2013ko uztailaren 8an amaituko da.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, itun bat formalizatzea da alde sinatzaileen borondatea, Euskal Erakunde Publikoetako Langileen Lanbaldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko xedapenak oso-oso aplikatu ahal izateko eragindako udal langile guztiei, legez aplikagarria den orotan; eta hori, datozen urteetarako beste akordio erregulatzaile bat lortu bitartean. Modu horretan, saihestu nahi dena da esparru handiagoko beste arau batek ardaztea Euskal Tokiko Erakundeetako langileen lanharremanak denbora-tarte horretan.

Aurreko guztia ikusita, eta martxoaren 24ko 1/1995 LED bidez onartutako Langileen Estatutuko Testu Bategineko 86.3 artikulua ezarritako aurreikuspenarekin eta horrek gizarte-agenteei ematen dizkien eskumenekin bat etorritik, aldeek **ITUN** hau sinatu dute, hitzarmen hauetan oinarrituta:

HITZARMENAK

Bakarra.- Idazketa berria ematea Euskal Tokiko Erakundeetako LANGILEEN lan-baldintzak Arautzen dituen 2008-2010 urteetarako Akordioko 4.4 artikuluari; horrela, aurreko 4.4 artikulua ordez, honela geratuko da idatzita:

- **4.4 art.: “Langileen Estatutuko 86.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta lan merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen idazketak sortu duen aldaketaren ostean, adostu da, Akordio berria lortzen ez den bitartean, oraingoak bere indarraldiari eutsiko diola”.**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros (PP) jaunak: “No es legal, quieren eludir la reforma del mercado laboral del Gobierno Central, que es la que se debe de aplicar a los convenios colectivos que regulan las relaciones laborales.

La reforma laboralak 3/2012 del Partido Popular marca el límite de un año de ultractividad desde la denuncia del convenio sin que se haya acordado un nuevo convenio o laudo arbitral, transcurrido el cual el convenio pierde vigencia y se aplicará el convenio colectivo de ámbito superior.”

Alkate jaunak: “A mi no me corresponde decir si es legal o no, pero creo que no hay ningún informe desfavorable, que lo diga, así que yo creo que será legal.”

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

13.- MOZIOAK:

a.- BILDUK aurkezten duen mozioa lan erreformaren aurka eta hitzarmen kolektiboaren indarraldiaren amaierari buruz.

Irakurri da aipatutako mozioa:

“Negoziazio Kolektiboaren erreforma, langileen ordezkariak eta patronalek negoziatio kolektiborako berez duten eskubidea baldintzatzeko eta murrizteko saialdi garbia da.

Gaur, inoiz baino gehiago, oinarrizko premiak, gizarte laguntzak, hezkuntza, osasuna, enplegua, etxebizitza, etab. murrizteko eta zorrotzeko politiken aurkako deiadar itzela egiten du gizarteak. Eta Udalak ezin dio gizarte deiadar horri ez ikusiarena egin. Beasaingo kaleetan ere islatzen da hori, hainbat pertsona eta talde gizarte eskubideak eta eskubide ekonomikoak defendatzeko- hamaika mobilizazio egiten ari baitira, eta hori guztia, negoziatio kolektiboarekin lotutako aldaketa batzuek ondorio makurrak izan dezaten gutxi falta denean; esate baterako, hitzarmenek orain arte zeukaten jarduera aniztasunaren galera edo nahitaezko arbitrajea. Horrek guztiak, jakina, arriskuan jarriko ditu urte ugaritan hitzartutako Jan baldintza asko eta asko.

Besteak beste, urte mordoxka batean hitzartutako Jan baldintzak uztailaren 7an bertan behera geratu eta iraganeko garaietara itzularazteko bidean jarriko gaituzten neurriak onartu eta aplikatu dituzte gobernuek, tamalez.

Horrenbestez, behar-beharrezkoa da erakundeok ahotsa goratzea eta zentzu honetan Beasaingo EH-BILDU Udal Taldeak mozio hau proposatzen dio, eztabaidatu dezan:

1º) Udalbatza Osoak Estatuko Gobernuak uztailaren 6ko 3/2012 Legearen bidez onartutako lan merkatuko erreforma neurriei erabateko gaitzespena aldarrikatzen du, izan ere, aipatutako neurriak atzerakoiak eta ez bidezkoak bait dira, eta ez dute balioko enplegua sortzeko baizik eta suntsitu eta lan baldintzak erabat ez egonkortzeko.

2º) Udalbatza Osoak sektoreko lan hitzarmena erreferentzi eremu gisa hartzen du langileen eskubide laboralen defentsa, erregulazio eta kohesiorako .

3º) Udalbatza Osoak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sindikatu eta patronalekin hatera premiazko Hitzarmen Mahaia deitzea, Euskadin hitzarmen kolektiboari Jaguntzeko eta gaur egun Euskadin indarrean dauden hainbat eta hainbat hitzarmen kolektiboen indarraldia galdu ez dadin akordio bat lortzeko.

4º) Baita ere, Udalbatza Osoak deritzo hitzarmen kolektiboetatik jarduera aniztasuna kentzeko aukera emateak, Jan baldintzak arautzeko funtzesko iturburua eratzen duenez, hitzarmen kolektiboari erasotzen diola.

5º) Udalbatza Osoak adosten du, (Udalhitz 2008-2010) Toki Erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren indarraldia mantentzeko itunaren oinarrian, eta Langileen Estatutuko 86.3 artikulua araberak, uztailearen 6ko lan merkatuko erreformarako premiazko neurrien 3/2012 Legearen idazketak sartutako aldaketaren ondoren, (2008-2010) Udalhitzaren Akordio berriren hatara iritsi bitartean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Julio Herreros jaunak (PP): “La crisis económica que atraviesa España desde 2008, ha puesto de relieve, entre otras cosas, las debilidades del modelo laboral español. La perseverancia de la crisis no tiene precedentes. España ha destruido más empleo y más rápidamente que las principales economías europeas y mundiales. Los datos de la última EPA, describen bien esta situación. Las cifras del paro superan los 5,2 millones de personas, con más de 1,5 millones de familias con todos sus miembros en paro y con más de 2 millones de personas sin cobertura de prestación de desempleo.

La destrucción de empleo ha sido más intensa en ciertos colectivos, especialmente en el de los jóvenes donde la tasa de paro alcanza casi el 50%. La incertidumbre a la hora de entrar en el mercado de trabajo, los reducidos sueldos iniciales y la situación económica general están provocando que muchos jóvenes, los mejor formados, abandonen el mercado de trabajo español y busquen oportunidades en el extranjero, con el resultado de una descapitalización competitiva importante y una inversión en capacitación echada por la borda, o mejor dicho rentabilizada por otros.

El desempleo de larga duración y la tasa de temporalidad son otros dos factores que nos distinguen negativamente. Casi el doble, en ambos casos, con respecto al conjunto de países de Europa y la OCDE.

En este contexto socio-económico, la reforma impuesta pretende garantizar tanto la flexibilidad de los empresarios en la gestión de los recursos humanos de la empresa como la seguridad de los trabajadores en el empleo y adecuados niveles de protección social en paralelo a las legislaciones europeas.

Sobre la reforma laboral, lo primero que quiero distinguir es que la reforma que aborda el RDL 3/2012, tiene las características y profundidad de la que hizo Alemania en 2003/2004, y que le permite el actual nivel de desarrollo y empleo.

Esta reforma equilibra la posición de empresarios y trabajadores en sintonía al contexto europeo. No hay una pérdida de derechos de los trabajadores, sino una pérdida de la adaptabilidad y de la flexibilidad de la empresa y de los representantes de aquellos.

La reforma ataca de raíz la dualidad del mercado laboral entre indefinidos y temporales, mayoritariamente jóvenes, que han venido constituyéndose en la herramienta de ajuste y de aumento de productividad de las empresas. La reforma adapta al nuevo siglo y al nuevo mundo económico el concepto mismo del derecho del trabajo, que deja de ser una normativa exclusivamente protectora del trabajador para pasar a ser una normativa que regula las relaciones de las personas en una empresa que tiene que ser competitiva para garantizar con su existencia el empleo y los derechos de los trabajadores.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Vamos a apoyar la moción porque los socialistas hemos manifestado reiteradamente nuestro más firme rechazo a las medidas contra la reforma laboral, mal llamada reforma porque es una contrarreforma aprobada por el Gobierno del Estado mediante la ley 3/2012, de 6 de julio. Las medidas son injustas, regresivas y no han servido para generar empleo (así se ha demostrado), sino para facilitar su destrucción y para que las condiciones de trabajo sean más precarias. Es por ello que el partido socialista presentó, además de las correspondientes mociones, solicitando la retirada de la reforma laboral del gobierno del partido popular, un recurso de inconstitucionalidad junto con otros partidos políticos, en el Congreso de los Diputados. Los socialistas consideramos, y lo hemos dicho en múltiples ocasiones que posibilitar la mediación de la ultratractividad de los convenios colectivos constituye un ataque demoledor y quiebra de manera grave la negociación colectiva, que supone eliminar de raíz la principal fuente para avanzar en un estado democrático que es la negociación entre la patronal y sindicatos, o dicho de otra manera, entre agentes sociales y empresariales. Por lo tanto, estamos a favor de la moción.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (BILDU, EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, ARALAR)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

b.- BILDUK aurkeztzen duen mozioa onkologikoaren etorkizunari buruz.

Idoia Baztarrika andreak mozioa irakurri da aipatutako mozioa:

“Onkologikoa kolokan dago bere etorkizuna zalantzan jartzen dituzten erabakiak hartzen ari direlako, Onkologikoan urteak lanean daramatzaten profesionalek eta langileek salatu duten moduan. Onkologikoak gipuzkoarrei orain arte eman dien zerbitzua ematen jarraitzea nahi badugu, kezka hauei kasu egin behar diegu.

Honengatik guztiagatik Beasaingo Udalak Onkologikoaren defentsa irmoa egin behar du. Horretarako Onkologikoa Osasun Zerbitzu Publikoa den Osakidetzan sartzeari eskatu behar da, jendarte guztiaren esku dagoen zerbitzua ziurtatzeko dagoen bide bakarra baita.

Onkologikoaren biziraupena eta zerbitzua bermatzea Beasaingo Udalaren ardura ere badelako; Onkologikoaren jardura nagusiak osasungintza publikoa izan behar duelako; herrialdeko gaixotasun onkologikoak artatzeko zerbitzu espezializatu gisa erreferente izaten jarraitu behar duelako eta jendarte guztiaren zerbitzura egon behar duelako, honako mozio hau aurkezten dugu Beasaingo Udalak aztertu eta onartu dezan:

- 1. Beasaingo Udalak Onkologikoaren eta bertako langileen aitortza egin nahi du, alor honetan urte luzetan egin duten lanagatik. Lan honek Onkologikoa mantendu, zaindu eta babestu beharreko erreferentean bilakatu du, beti ere jendarte guztiari zuzendutako zerbitzu bezala.*
- 2. Beasaingo Udalak Onkologikoa, Osakidetzan, Osasun Publikoaren Sistemari, sartzeko nahia adierazten du eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dadila Kutxako Zuzendaritzarekin eta Gizarte Ekintzarekin eskakizun hau errealitate bilakatzeko beharrezkoa den plangintza adosten. Plangintza horretan eman beharreko urratsak, epeak eta bi erakundeen kulturak uztartzeko ibilbidea jaso beharko dira.*
- 3. Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Kutxako eta Kutxabank-eko zuzendariari eskatzen die, adostutako zuzendaritza baten baitan garatuko den trantsiziozko epealdi honetan berma dezatela Onkologikoak biziraupenerako behar duen diru-hornidura. Hornidura honek, gutxienean, orain arteko kopuru berekoa izan behar du.*
- 4. Beasaingo Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakiak jakinarazi behar die:*
 - Kutxako Batzarrari eta bere Gizarte Ekintza Batzordeari*
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari*
 - Osakidetza Zuzendariari*
 - Beasaingo herritarrei”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “El inmenso servicio que han hecho a la población, a la sociedad guipuzcoana y a la sociedad vasca, los profesionales, los trabajadores y los profesores del Oncológico de San Sebastian, pone también en valor la labor que ha hecho y está haciendo y seguro que en el futuro va a seguir haciendo la Kutxa a través de la obra social.

Hoy el Oncológico es una realidad gracias al papel desarrollado por Kutxa, por los profesionales, por los que trabajan en el Oncológico, pero también por los que lo hacen en Kutxa, que tienen este servicio encuadrado en su obra social, como algo prioritario y además lo han repetido en más de una ocasión.

Crear Fundación Onkologikoa, que como bien sabes Vds. es una organización privada, que es una fundación sin ánimo de lucro...

Es verdad que la difícil situación económica por la que atravesamos está generando mucha incertidumbre y está generando miedos. Y eso es lógico. Y no sólo en el Oncológico, sino en toda la sociedad. En el mundo en que nos movemos ¿quien no tiene incertidumbres?; ¿Quien no tiene miedos en el contexto económico en el que nos desenvolvemos en este momento?.

Dadas las circunstancias presupuestarias es verdad que todas las administraciones están teniendo problemas con sus ingresos. A todos nos suena esto. Y bueno, hay que actuar con responsabilidad.

Mi propuesta en este caso sería muy sencilla, dejemos trabajar a los que deben y a los que lo están haciendo con éxito hasta la fecha, y confiemos en que si hasta la fecha lo han hecho bien, lo van a seguir haciendo con el mismo éxito.

Otra propuesta sería que Osakidetza colabore, como lo ha venido haciendo hasta ahora con éxito, con eficacia, que se renueve el convenio para que este modelo siga siendo un éxito.

Que el oncológico siga prestando a la ciudadanía guipuzcoana más servicios, como lo viene haciendo tantos años. Que lo haga integrado en la estructura funcional de la red de Osakidetza, de manera impecable, como lo haría hasta ahora, siendo el referente de algunos tratamientos oncológicos. Pero lo queremos de forma coordinada con el Hospital Universitario Donostia, para evitar duplicidades y derroches de recursos.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik mozio bakarria bozkatzea eskatuko nuke, mozioak ez direlako kontrajarriak, baizik eta bata bestearen gehigarria da. Nire beste mozio bat irakurtzera noa, baina bata bestearen gehigarria da. Denok antzeko gauzak esaten ari gara. Nik proposatzen dut bat botatzea eta bien batura bat egitea, zeren eta nik uste dut berak planteatzen dituen puntuetan bakarria dagoela zuenarekiko gehigarria dena, hau da, Donostiako ospitale unibertsitatean, bien arteko funtzionalidadeetan sakontzea. Hori da eskaera. Nire ustez, mozio eta kontramozio horietan oinarria berdina da eta bietan berdina eskatzen da.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Seguramente no habrá mucho más, pero nosotros mantenemos nuestra moción. No sé si el PP, lo ha presentado como moción o como una defensa o como un texto. Lo que dice es que se siga haciendo como hasta ahora porque Kutxa ha hecho bien su trabajo. Nosotros lo que pedimos son otras cosas.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nik esaten dudana da, zuenaren gehigarri bezala puntu hori gehitzea onartzen duzuen. Zuek esan duzuenaz gain bien arteko funtzionalidade hori gehitzea eta bat bozkatzea.”

Alkate jaunak (BILDU): “Baina berarentzat diferentea da. Yo no empezaría a mezclar las dos mociones. A parte de los puntos, son varias las cosas diferentes que se plantean. Si es sólo un punto. El aprueba todo esto y es añadirle un punto más...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Yo no sé lo que propone el PP. Nosotros como EAJ, proponemos que además de lo que vosotros habéis propuesto, el punto ese que dice que se integre, que por otra parte, me parece lógico.”

Alkate jaunak (BILDU): “Gure aldetik hori bakarrik bada...Teniendo como base la moción que presentamos nosotros, y añadiendo el punto que ha comentado Aitor...”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Onkologikoa ez da denen erreferentea. Onkologikoa da gaixotasun batzuetan. Beste batzuetan da, Donostiako ospitalea da, orduan bien arteko integrazioa da eskatzen duguna, hau da, orain arte egin denaz gain hor sakontzea. Hori da guk gehitu nahi duguna. Hori da nik ulertu dudana. Bozkatzen dena puntuak dira eta ez aurretik egiten diren azalpenak. Arrazoietan ados egon gabe ere, mozioan bozkatzen dena puntuak dira. Por lo que yo he entendido la única nota adicional es el que haya una integración del hospital de Donostia y el Oncológico.”

Alkate jaunak (BILDU): “El no está diciendo que se de la misma aportación que se está dando hasta hoy en día, sino todo lo contrario.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Pero lo que yo entiendo es que se siga manteniendo el concierto que hay hasta ahora.”

Alkate jaunak (BILDU): “Honek esaten dit Kutzari uzteko bere lana egiten.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Beno, baina orain arte bezala ez?.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk esaten duguna da, orain arte emandako ekarpen ekonomikoak berdin jarraitzea aportatzen. Berak ez du hori esaten. Yo lo que le entiendo a Julio es que se le deje a Kutxa trabajar como ha hecho hasta ahora.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Vosotros decis, que el gobierno continúe dando pasos en la vía de la integración funcional entre el Oncológico y el Hospital universitario de Donostia. Nosotros lo que decimos y estamos de acuerdo con BILDU, es que no continúe, es que se den. La razón de que esta moción esté circulando por aquí, es que en marzo tanto BILDU como el grupo socialista, hicieron ambas enmiendas o mociones al parlamento vasco, pero no fue posible llegar a ningún acuerdo. Por eso vienen estas mociones a los Ayuntamientos.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Independientemente de las razones, lo que se está votando es que se siga manteniendo el concierto, que se renueve el concierto.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Que se mantenga el concierto, pero siendo conscientes de que está cogido con alfileres. Ya que el Gobierno Vasco y el departamento de Sanidad pagan el 85% aproximadamente del Oncológico, y no tienen decisiones propias, que se integre en la red sanitaria de Osakidetza.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Las razones las que quieras, pero se dice que se renueve el Concierto. Independientemente de las razones que defienda cada uno, lo que se hace es votar unos puntos.”

Alkate jaunak (BILDU): “Guk gurea aurkezten dugu. Para la próxima vez sería interesante tener los puntos de antemano para poder analizar y contrastar.”

Kontramoziua bozkatu da:

Aldeko botoak: 1 (PP)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 7 (EAJ, H1)

Aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago izan direnez, kontramozioa ez da onartu.

EAJ, proposatutakoa bozkatu da, hau da, aurkeztutako mozioari integrazioko puntua gehitzea:

Aldeko botoak: 7 (EAJ, H1)

Aurkako botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Abstentzioak: 1 (PP)

BILDUK aurkeztutako mozioa bozkatu da:

Aldeko botoak: 9 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 8 (EAJ, H1, PP)

Abstentzioak: 0

14.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2013ko maiatzaren 20tik 2013ko ekainaren 29rarte emandako Ebazpenak.

15.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

USURBE ZINEA

Garbiñe Zurutuza andreak (ARALAR): **“USURBE ANTZOKIA ETA ERAKUSKETA ARETOAREN KUDEAKETA**

1991. urterarte zinea PROCISA enpresak kudeatzen zuen, 1991eko urrian udalaren esku geratu zen, eta orduan zinea berritzeko obrak egin zituzten. Obrak amaitu ondoren, lehenengo lehiaketa 1994an egin zen, azaroan formalizatu zelarik Ansoalde enpresarekin kontratua.

1994az geroztik beste bi lehiaketa egin ziren. Azkena 2002. urtean, eta 4 urterako Ansoalderi esleitu zitzaion zinearen eta erakusketa aretoaren kudeaketa 2006ra arte. Kontratua amaitu zenean, ez zen kontratua berritu, beraz 2006.urtetik 2012ra arte, egoera irregular batean egon zen kudeatua, kontraturik gabe, horrek suposatzen duenarekin.

2009. urterarte, zinea abuztuan bakarrik ixten zen, eta langileek oporrak hartzen zituzten. 2009an, Ansoalde eta orduko udal gobernuko agintariek, uztaila hasieratik urri hasiera arte zinea ixtea erabaki zuten,

udaran ez bait zen jenderik joaten. Ansoaldek ordurako langile bat %100eko lanaldiko kontratuarekin zuen eta zerbitzurik ematen ez zen arren ordaintzen jarraitu zion udarako bi hilabete horiek, nahiz eta lanik ez egin. 2012an langile batekin sortu den arazoa ordutik dator, izan ere udaran ixtea erabaki zenean langileen kontratuak ez ziren egokitu lanaldi berrira. Gauzak ondo egiteko kontratua finko ez jarraia bat (erderaz contrato fijo diskontinuo) egin behar zitzairen, irailtik ekainera, baino ...

Ansoaldek gainera ez zuen berdin jokatzeko langile guztiekin. Lanaldi osoko kontratua zuen langilea arduratzen zen kudeaketa osoaz, udalarekiko koordinazioa barne. Ansoaldek "a distancia" kudeatzen zuen, fakturak bere izenean iristen ziren baina hemen eguneroko martxan gertatzen zena ez zuen ikusten. Guzti hau ekiditeko, 2012ko pleguko baldintza bat proaktibotasuna baloratzea izan zen. Oraingoan ere berdina egin dugu.

Arazo horren aurrean, EH-BILDU gobernura sartu ginanean zinea eta erakusketa aretoa ez genuen egoera irregularrean kudeatzen jarraitu nahi, beraz hasera batean gure ideia zinea zuzenean kudeatzea zen, Elgoibar eta beste zenbait herrietan udalak egiten duen bezala, baino RAJOYren dekretuak hau ez zuen ahalbideratzen. Beraz 2012ko udaran zinea eta erakusketa aretoa kudeatzeko plegu berria atera genuen eta lehiaketa irabazten zuen enpresak langileak subrogatu behar zituen.

HIRUTEK enpresa atera zen garaile eta subrogatu behar zituen langileen kontratuak aztertzen hasi zenean 3 langileei kontratua finko ez jarraia eskaini zien (fijo diskontinuo), bik onartu zuten baina batek ez, eta orduan hasi ziren langilearen eta HIRUTEK-en arteko hika-mikak. Langileak salaketa bat jarri zion enpresari, gaia epaitegiraino iritsi zen eta 2012ko abenduaren 20an kontziliazio batera iritsi ziren langilea eta enpresa.

Hiru Langileei ez zitzaizenez lan baldintza berdinak eskaintzen eta honek giro txarra sortu zuen beraien artean. Enpresa berdinean lan egin eta eskubide ezberdinak edukitzea inori ez bait zaio gustatzen.

